

# Rafa Rueda

*2021-2022*



Kontratazioa:

ZARTMANAGEMENT

+34 670052829



Komunikazioa:

+34 656 796 209

[g.barandiaran@dijitalidadea.com](mailto:g.barandiaran@dijitalidadea.com)

**\*ZART**

2003an hasi zuen bakarkako ibilbidean idazleekin eta literaturarekin izan duen harremana, bai diskoak bere izenez sinatu dituenen bai beste sortzaile batzuekin elkarlanean ondu dituenen etenbakoa izan da: Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal eta Mikel Valverderekin osatutako Zaharregia, txikiegia agian eta Jainko txiki eta jostalari hura, hamaika kantari ezagunen ahotsek Estepan Urkiaga Lauaxet ren poemekin osatutako Ehungarrenean hamaika, Omar Nabarro poetarekin bi ahotsetara sortutako Haragizkoa, Gabriel Arestiren poemak kantatzen dituen Gabrielen Lekua edota joan den urtean argitaratu zen Joseba Sarrionandiaren testuekin osatutako kantak jasotzen dituen Gure oroitzapenak bilduma. Rafa Ruedak laster bi hamarkada egingo ditu berak idatzitako letrak zein idazleenak kantatzen. Elkarreragin horri eutsi dio RUEDA egitasmo berri honetan ere.

"RUEDA" deritzo Rafa Ruedaren proiektu berriari. Gitarra, ahotsa, elektronika eta literatura uztartu ditu zortzi kantuz osatutako bere bakarkako seigarren lan luzean. Lan berri honetan Inge Muller, Joseba Sarrionandia, Iñigo Astiz, Audre Lorde, Mari Luz Esteban, Josu Goikoetxea eta Elena Olaberen testuak musikatu ditu.

Jon Agirrezabalaga (WAS) izan da ekoizpen artistikoaren, grabaketaren eta elektronikaren arduraduna. Bilboko "El Tigre" estudioan burutu dute lana.

Bereziki nabarmendu gura genuke 30 ahots gaztez osatutako Bilboko **Koral Elkarteko** "Euskeria" abesbatzak hainbat kantutan hartu duela parte, RUEDA diskoan musika tresna-nagusia ahotsa den seinale.

Rafa Ruedaren eta Euskeria abesbatzaren arteko elkarlanaren emaitza, diskoan ez eze, zuzenekoetan ere erakutsi gura dugu bira honetan zehar ospatuko den kontzertu sorta "berezi" batean.

Emanaldiotan, Rafa Rueda bere ohiko bi musikariek eta "Euskeria" abesbatzak lagunduta taularatuko da. "RUEDA" laneko kanta berriak aurkezteaz gain, bere ibilbide osoko kantu distiratsuenak proposamen berezi honek eskaintzen dizkion aukera estetikoetara moldatuta aurkeztuko dizkigu. Gitarra, elektronika eta ahotsen polifonia ez-ohikoa eskaini asmo duen proposamen ausart bezain kitzikagarria izango da.

Arestian aipatu bezala, azpimarratu nahi genuke kontzertu horiek Rafa Ruedak bere ohiko bandarekin "RUEDA" lana aurkezteko aurki abiatuko duen birarekin tartekatuko direla. Izan ere, hiru ezberdinetan aritzeko aukera baitugu eskuartean:

Rafa Rueda bandarekin. Euskaria abesbatzarekin. Bakarka.



**Kontratazioa:**  
ZARTMANAGEMENT  
+34 670052829



**Komunikazioa:**  
+34 656 796 209  
g.barandiaran@dijitalidadea.com